

IKERKA

ASSOCIATION DE RECHERCHE SOCIALE

8 rue Thiers
64100 Bayonne
(59) 25 75 56

Baionan 1984.11.26

François Fourquet
Elkartearen buruzagia

Lafitte Kalonje Jauna
Petit Séminaire
64480 UZTARITZ

Kalonje Jauna,

Izkiriatzen dautzut galdegiteko Buhame Jaunaren "pheredikü" bat emaiten ahal dautazun. Duela bi urte, Herriz Herri kazetak 1864-an emana den prediku hori agerarazi du (huna fotokopia) eta Jean LEGARTO Irisarrikoak erran dautazu zuhauk eman ziniola zure Baionako kursoa segitzen zuelarik.


Ni ikertzaile naiz. Ikerketa bat eremaiten dut maskaraderi buruz, eta bereziki predikuak biltzen ditut. Duela 12 urte CNRS-eko ikertzaile batek Altxürükiko maskarada erregistratu zuen, berrikitan prestatu daut, eta zinta hortan Buhame Jaunaren predikua zorionez atxeman dut. Harritua nintzen, prediku horrek Herriz Herrin publikatu predikuaren eitea baitu, egiaztatuko dukezun bezala (fotokopia ere presentatzen dautzut).

Arazoin hoientzat, 1864-eko prediku hori berritz agerarazi nahi nuke (Bulletin du Musée Basque delakoan, Jean Haritschelhar-ek galdeginik) ez bakarrik ene komentarioarekin, bainan erranez hainxuxen nundik ateratzen den prediku hori, zoin "arxibetan" ala nungo etxean atxeman duzun, ixtoriako kritikaren erreglen araberan.

Otoi, barka zazu euskaldun berri baten euskara txarra ! Jakin dut eria zinela eta zure osagarria laster itzuliko dela esperantza dut. Alabainan, boztario handia ukhan nezake zure ikusteko parada emaiten balaut ikerketa horrek.

Errespetuki

François Fourquet



*PS. idurizen zait holako "pheredikiak"
egiazko euskal literaturan ere
bertu behar dirala*